# MUTRIKUKO UDALA:

## HONDAKIN BILKETA SISTEMA HOBETZEKO PARTAIDETZA PROZESUA, 2014




## 1.FASEAREN ONDORIOEN TXOSTENA

**HONDAKIN BILKETA SISTEMAREN**

**GAUR EGUNGO MUTRIKUKO EGOERA**

# AURKIBIDEA

1 MUTRIKUKO BIZTANLERIA DATUAK ........ 3
2 HONDAKIN BILKETA ........ 3
3 2013ko SAILKATZE DATUAK ........ 4
4 MATERIA NAHASIAREN OSAERA ........ 6
4.1 NAHASIAREN BILKETA ........ 6
5 KONPOSTAIA ........ 6
6 BILKETA ETA TRATAMENDU KOSTUAK ........ 7
7 BILKETA PUNTUAK ........ 8
8 HONDAKIN SORTZAILE BEREZIAK ........ 8
9 HERRITARREN PERTZEPZIOAK ........ 9
9.1 SORTZEN DUGUNA ........ 9
9.2 SAILKATZEN DUGUNA ........ 10
9.3 TRATAMENDUA ........ 10
9.4 FUNTZIONAMENDUA ........ 11
9.5 GASTUAK ........ 11
9.6 BESTELAKORIK ........ 12
10 HERRITARREN HELBURUAK ........ 13

# 1 MUTRIKUKO BIZTANLERIA DATUAK

MUTRIKUn guztira 5109 pertsona daude erroldatuta, Guztira 2586 etxebizitzatan bizi dira mutrikuarrak, horietatik % 77,04a (2011) erdiguneko etxebizitzatan eta %22,96a (577) landa-eremuan.




# 2 HONDAKIN BILKETA

Gaur egun hondakin bilketa lau frakzio nagusitan egiten da edukiontzi bidez, modu honetan bereiztuta:



**Papera eta kartoia:** Sortzaile berezien bilketa Debabarrenako mankomunitateak gauzatzen du eta kaleko eduki ontzietakoa Cespak egiten du. Amorebieta papelera



**Ontzi arinak:**Cespan bidez biltzen da. Sasieta



**Beira:**Vidraldakegiten du bilketa.



**Eduki ontzi berdea (nahasia):** Mankomunitateak biltzen du. Lapatx

**Besteak**: Olioa, pilak, arropa, egurra…

# 3 2013ko SAILKATZE DATUAK

2013. urteko datuei erreparatuta Mutrikun hondakinen %26,49a gaika sailkatuta bildu zen. Sortutako hondakinen %73,51a sailkatu gabe jaso zen, materia nahasia deitzen dioguna.




Jarraian 2013.urtean eskualdeko herrien arteko datu konparatiboak aurki ditzakegu.




Ikus daitekeenez Debabarrenako eskualdeak eskaintzen ditu gaikako bilketa daturik baxuenak.



Ondorengo grafikoak 2013.urteko bilketa datu zehatzak eskaini dizkigu.

Sortzen den hondakin totala eta ehunekoa ikus dezakegu koadro honetan.

Biztanleko zenbat sortzen den ikusteko aukera eskaintzen digu grafikoak ere.

| | **MUTRIKU** | | | **DEBABARRENA** | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | KILOAK | EHUNEKOAK | **KG/ BIZTANLEKO** | KILOAK | EHUNEKOAK | **KG/BIZTANLEKO** |
| ORGANIKOA | 28.215,31 | 1,16 | **5,40** | 1.513.228,01 | 5,58 | **20,65** |
| PAPERA-KARTOIA | 201.562,43 | 8,31 | **38,58** | 2.268.460,99 | 8,36 | **30,96** |
| ONTZI ARINAK | 80.256,00 | 3,31 | **15,36** | 862.239,01 | 3,18 | **11,77** |
| BEIRA | 148.094,00 | 6,11 | **28,34** | 1.963.547,00 | 7,24 | **26,80** |
| BESTEAK | 184.155,34 | 7,60 | **35,25** | 1.428.232,01 | 5,26 | **19,49** |
| NAHASIA | 1.782.231,13 | 73,51 | **341,10** | 19.093.440,26 | 70,38 | **260,58** |
| GUZTIRA | 2.424.514,21 | 100,00 | **464,02** | 27.129.147,28 | 100,00 | **370,24** |

# 4 MATERIA NAHASIAREN OSAERA

Hurrengo grafikoak 2013ko datuak aintzat hartuta, Mutrikun biltzen den materia nahasia portzentajearen arabera nola dagoen osatuta adierazten digu:




Modu honetan, azpimarra daiteke errefusa eta materia mixtoa elkartuta %16,93a dela, eta gainontzeko %83,07a sailkatuta biltzen ez den materia dela.

## 4.1 NAHASIAREN BILKETA

| GAIA | MUTRIKU | DEBABARRENA |
|---|---|---|
| *Herriko kontenedore eta ingurutan jasota (nahastuta)* | 1555.296 | 1.4891.254 |
| *Landa eremuko kontenedoreetanjasota* | 53.810,34 | 563.233,3 |
| *Atez ate komertzio eta poligonoetan jasota* | 121.669,2 | 3.323.017 |
| *Bid egarbiketan jasota* | 51.456 | 315.936 |
| GUZTIRA | 1.782.231 | 19.093.440 |

Datu honek adierazten digu Mutrikun biltzen den errefusa gehiena herriko kontenedoreetan eta ingurutan biltzen dela.

# 5 KONPOSTAIA

Gaur egun Mutrikun 123 familiek egiten dute autokonposta eta auzokonposta.

Gehiena autokonposta dela ikus daiteke:



# 6 BILKETA ETA TRATAMENDU KOSTUAK

Jarraian 2014ko urteko Mutrikuko udalaren gastuak aurkezten dira:

2014ko kuota 562.275,19 eurokoa da. Bi zatitan banatzen ditugu:

- Goi gestioa: GHKk kobratzen duena hondakinen trataeragatik( 204.868 euro).
- Behe gestioa: Mankomunitateak gure hondakinen bilketagatik kobratzen duena. (357.407 euro)

Hona hemen 2014.urteko udalaren zabor tasak zehaztuta:

***Euro/urtean***

| | |
|---|---|
| Etxebizitza bakoitzeko | **183,27** |
| Etxebizitza hutsak (ez dago ur kontagailurik) | 95,60 |
| Baserri eta etxebizitzak lurzoru ez urbanizagarrian | **146,62** |
| Hirigunean konposta egiten dutenak | **146,62** |
| Janari eta altzari dendak | 600,13 |
| Gainerako dendak eta jarduerak | 394,83 |
| Jarduera gabeko Lokalak eta biltegiak: (20 m² gutxienez) | 50,00 |
| Tabernak | 801,88 |
| Jatetxeak | 1.029,67 |
| Elkarteak | 333,60 |
| Osasun Zentroa | 402,78 |
| Santa Elena kanpalekua | 4.094,93 |
| Arbelaitz kanpalekua | 312,00 |
| Galdona kanpalekua | 3.366,10 |
| Aitzeta kanpalekua | 584,98 |
| 5 enplegatu arteko industriak | 654,77 |
| 10enplegatu artekoindustriak | 1.309,55 |
| 11tik 50 enplegaturaartekoindus | 1.557,09 |
| 51 enplegatugoragokoindus | 2.272,59 |
| Bankuetxeak eta Correos | 1.309,54 |
| Bidai eta inmobiliaria agentziak | 612,05 |
| Azalerahaundikodendak | 2.362,63 |
| Dantzalekuak | 584,98 |

# 7 BILKETA PUNTUAK

Mutrikun zehar guztira 99 bilketa puntu daude. Honela banatzen dira puntu hauek:

| GAIA | KONTENEDORE KOPURUA |
|---|---|
| NAHASIA | 77 |
| PAPERA ETA KARTOIA | 25 |
| ONTZI ARINAK | 21 |
| BEIRA | 33 |
| PILAK | 12 |
| OLIOA | 5 |
| ARROPA | 2 |

Datu hauek honakoa adierazten digute.

# 8 HONDAKIN SORTZAILE BEREZIAK

- **P o l i g o n o a k .**Mankomunitateak Urtarrilaren 1etik aurrera bioresiduo, egurra eta papera (bakoitzean)

- **K o m e r t z i o a k .**Papera egunero

# 9 HERRITARREN PERTZEPZIOAK

Jarraian, 1.saioan zehar herritarrek egindako ekarpenak aurkezten dira.

Herritarrek gaur egungo bilketa sistema nola baloratzen duten aztertu dugu, planteatu aldagai desberdinen arabera.

***Parentesi artean agertzen diren zenbakiek egindako ekarpenen kopuruak adierazten dizkigute***

## 9.1 SORTZEN DUGUNA

Gaur egun sortzen den hondakinaren araberako azterketa honako gogoetak utzi dizkigu:

| | INDARGUNEAK | AHULGUNEAK | HOBETZEKOAK |
|---|---|---|---|
| **SORTZEN DUGUNA** | • Haragia tuperrean jasotzea ona.<br>• Kontziente dira gehiegi sortzen dela.<br>• Ontzi arinei dagokionez hobekuntzak izan dira.<br>• Sortzen denaren gutxiengo bat bereizten dela. | • Sortzen dena ez dago biztanleen esku.<br>• **Kontsumitzen dugunaren inguruko kontzientziarik ez** dago. (2)<br>• Enbasaturiko produktuak gehiegi kontsumitzen dira.<br>• **Jendeak bereizi gabe** botatzen du.<br>• **Gutxi birziklatzen da.**<br>• Hondakin ez birziklagarri asko sortzearen ondorioz gehiago ordaintzen da.<br>• Hobetu daiteke.<br>• Hondakinak bereizteko edukiontzi faltaren ondorioz jendeak dena nahasita botatzen du. | • Tuperraren antzeko apustuekin jarraitzea.<br>• Enbasaturiko produktuak ekiditea. Itzuliz edota zerga ezarriz.<br>• Poltsa, kaxen,… **berrerabilpena.**<br>• **Konpostagune** gehiago ipintzea.<br>• Gutxiago sortzeaz gain, gehiago eta hobeto birziklatzea.<br>• **Sortzen dugunari buruzko informazioa**(nora botatzen da, zer egiten da,…) |

## 9.2 SAILKATZEN DUGUNA

Gaur egun Mutrikun egiten den gaikako bilketaren inguruko gogoetak iritzi hauek plazaratu dituzte:

| | INDARGUNEAK | AHULGUNEAK | HOBETZEKOAK |
|---|---|---|---|
| **SAILKATZEN DUGUNA** | • **Beira ongi** sailkatzen da. (2)<br>• **Papera ere ongi** sailkatzen da.<br>• Kontzientzia hartzen doa jendea.<br>• **Konpostarekin hobekuntza.**<br>• Gutxienez minimo bat birziklatzen da.<br>• Kontzientziazio gutxiengo bat badago.<br>• Gero eta gehiago sailkatzen da.<br>• | • %25 portzentajea oso baxua da.<br>• **Organikoa bereizteko aukerarik** ez dago. (2)<br>• **Jendeak ez daki bereizten.**<br>• Ontzi arin batzuekin zailtasunak ditu jendeak.<br>• Konpostarako aukera gutxi dago.<br>• Ez birziklatzeko aukera dago.<br>• Zabor biltzaileek dena nahasten dutenaren zurrumurrua dago. (2)<br>• %30ak bakarrik bereizten ditu hondakinak.<br>• Edukiontzi horiek ontzi arinak sartzeko aho txikiegia dute eta askotan ezin izaten dute sartu. (2)<br>• Pilak biltzeko toki gutxi daude. (2)<br>• Asko kutsatzen da.<br>• Gutxi sailkatzen da. (2)<br>• Sailkatuta jasotzeko edukiontzi gutxi dago. | • Sailkatze maila %60ko portzentajeetara iristea.<br>• **Konpostajea zabaltzea.**<br>• **Jendea sentsibilizatzea.**<br>• Alferkeriak alde batera uztea<br>• Konposta guneak gehitzea.<br>• Sailkatzea erraza da eta mezu hori zabaltzea.<br>• Pilak maiztasun handiagoz biltzea.<br>• Txakur kaken inguruan neurriak hartzea.<br>• Gehiago sailkatu behar dira hondakinak.<br>• Organikoa sailkatzeko baliabideak jartzea. (3) |

## 9.3 TRATAMENDUA

Hona hemen biltzen diren hondakinen tratamenduaren inguruko azterketei buruzko hausnarketak:

| | INDARGUNEAK | AHULGUNEAK | HOBETZEKOAK |
|---|---|---|---|
| **TRATAMENDUA** | • Ondo dagoela uste da. | • Garbigunea urruti dago.<br>• Material aprobetxagarri asko bidean geratzen da.<br>• Zabortegia beteta daude. | • Altzariak jasotzeko sistema hobetzea.<br>• Organikoa tratatu beharra dago. |

## 9.4 FUNTZIONAMENDUA

Gaur egungo Mutrikuko sistemaren funtzionamenduaren inguruan herritarrek egindako ekarpenak jarraian aurkezten dira.

| | INDARGUNEAK | AHULGUNEAK | HOBETZEKOAK |
|---|---|---|---|
| **FUNTZIONAMENDUA** (Gertutasuna, ordutegiak, garbitasuna…) | • **Ordutegia librea** da. (3)<br>• **Gertutasun handia** dago edukiontziekiko.<br>• **Erosotasun handia.**<br>• Nahi denean bota daitezke hondakinak.<br>• Gertutasun egokia.<br>• **Edukiontzilurperatuak.**<br>• Kamioiakkartoiabiltzeakomertzioetan | • Goizeko 6:00tan erdigunean zarata handia izaten da.<br>• **Edukiontziak zikinak** egoten dira. (5)<br>• Edukiontzi subterraneoen matxurak konpontzeko garestiak dira. (2)<br>• Kalean geratzen diren hondakinak ezin dira birziklatu.<br>• **Toki batzuetan edukiontziak urruti** geratzen dira. (2)<br>• **Informazio falta**zernora bota behar den jakiteko. | • Aukerak hurbiltzea.<br>• Kanpoan dauden edukiontzi gutxiago eta subterratu gehiago kolokatzea.<br>• Kaleak garbitzeko erabiltzen den ura berrerabiltzea.<br>• Garbitasuna hobetu behar da.<br>• Edukiontziakgehiagotangarbitzea.<br>• Informatzea. |

## 9.5 GASTUAK

Hurrengo koadroan sistemaren gastuen inguruko iritziak biltzen dira.

| | INDARGUNEAK | AHULGUNEAK | HOBETZEKOAK |
|---|---|---|---|
| **GASTUAK** | | • **Gutxi birziklatzen denez garesti** irteten da. (3)<br>• **Tasak garestiegiak** dira.<br>• Jendeak hondakinak edukiontzietatik kanpo uzten ditu eta ondorioz animaliak jatera joaten dira ingurua gehiago zikinduz.<br>• Gipuzkoako tasarik garestiena ordaintzen dute Mutrikun.<br>• Ez da justua etxebizitza batean bizi diren pertsona kopurua kontuan hartzea.<br>• **Garestiegia** da. (2) | • Beste irizpide batzuk ezarri behar dira eskualde mailan.<br>  • Tasak etxean bizi diren pertsonen kopuruaren arabera egokitze edota orekatzea.<br>  • Merketu beharra dago. |

## 9.6 BESTELAKORIK

Azkenik, gaur egungo hondakinen bilketa sistemaren inguruko balorazio orokorrak aurkezten dira:

| | INDARGUNEAK | AHULGUNEAK | HOBETZEKOAK |
|---|---|---|---|
| **BESTELAKORIK** | • Auto-konposta ondo baloratzen da.<br>• Gaur egungo **sistema aldatzeko borondatea dago.** | • Hondakinak biltzen dituen kamioiak dena batera biltzen du.<br>• **Heziketa falta** dago<br>• **Garbigunea gainezka** egoten da | • Tabernek gehiago sailkatu behar dute.<br>• Hondakinak ez sortzearen eta berrerabilpenaren mezua zabaltzea. |

# 10 HERRITARREN HELBURUAK

Jarraian partaideek hondakin bilketa sistemari dagokionean adierazitako HELBURUAK aurkezte dira:

**BIRZIKLAPEN MAILA AREAGOTU (33) (+13)**

- Ahalik eta birziklatze tasa handiena bermatuko lukeen sistema izatea.(17)
- Gehiago birziklatzea. (3)
- Birziklatu daitekeenaren %100 birziklatzea.
- Gutxienez %80 birziklatuko duen sistema izatea.(9)
- %70ko birziklapen maila lortzea.
- %60 gutxienez birziklatzea ahalbidetzen duen sistema izatea.(2)

- Organikoa jasotzeko aukera ematea.(5)
- Konpostagune gehiago izango duen sistema.

- Kontrol bat eramango duen sistema.
- Sistema eraginkorra izatea.
- Edukiontzi berdea kentzea.

- Atez-ateko sistema ipintzea.(3)

- Birziklatzea derrigorrezkoa izatea.

**EROSOA IZATEA (13)**

- Erosoa izatea.(8)
- Gertu egotea. (2)
- Ordutegi eta egunei dagokionez askatasun osoa izatea. (2)
- Herritarrei modu erosoa birziklatzeko gogoa piztea.

**HERRITARREN KONTZIENTZIA AREAGOTZEA (9)**

- Kontzientziazioa bultzatuko duen sistema izatea.(8)
- Modu natural eta kontziente batean egitea.

**KALEKO GARBITASUNA MANTENTZEA (7)**

- Kaleak garbi mantentzea.(5).
- Estetikoki txukuna eta garbia izatea.(2)

**MERKEA IZATEA (5)**

- Tasak merketzea. (3)
- Ahalik eta merkeena izatea.(2)